

## SUGARRAREN GAUA

Jadanik, hostoek txinka egiten zuten. Iaz Donibaneko baselizako ermitari Gerriko-k, sentikor, gorde izan zituenak.

Hosto haiek herrira etorriko zelako sorpresa ona aldarrikatzen zuten.

Urtero su emateko unean ermitariaren eskuak laztantzen zituen. Gerriko-k laztanaren nabaritzen zuen sentsazio gozo har bera herritar guztiek sentitzen zuten. Gau hura magikoa zen.

Sortzen hasi ziren lehendabiziko garren hotsak, txiki-txikiak, jolasgarriak, irritsuak. Kirriz karraz haien zaratak, zienek burura zekarten kolkoan denok ditugun udako solstizioko usainak, koloreak, ilusioak..... plazer gogoak.

Garrak bere usain botatzeaz gain guri begiratzen zigun. Denbora luzez begiratu zigun. Gu so egiten gintuela, gure begien pasioa sortzen hasten zen.

Garrak ziztu bizian hasten zen bitartean neskak, mutilak, haurrak, helduak... denek berak zuen sutsu gorri kolorea hartan islatzen ziren.

Txinpartak ez zuen erretzen egun hartan. Su inguruan dantza egiten zen jendearengana hurbildu zen izpiritu txarren kontra babesteko asmoz.

Sugarrak, haizea, bidaiaren laguna baliatuz, herriko kaleetan zehar *Bailadotes* kate burua eta honen atzean dantzatzen zetorren jendea itzulinguratu eta buru-belarri gerizatu zituen. Oso jokabide polita zen.

Donibane baselizako sugarrek Gerriko-ko suari eta herriko enparantzetaoak elkar lotu ziren. Lotura hain ederki egin zuten eta horrenbesteko indarra elkarri eman zioten ezen kanbor guztiek egunsentia sortu baitzuten.

Lainoren izpirik ez. Zeru urdin-urdina. Egun zoragarria benetan huraxe!

Bart, txinpartek utzitako indarra, adiskidetasuna eta alaitasuna denek hartua zuten dagoeneko: *las mañanitas* abeslariak, gaupaseroek, gaztetxeroek, enrramadakoek, Donibaneko mezetara zihoazen emakumeek... Egunsenti magiko hartan.

Aurreko urteetatik gordetako ilusio, gogoak eta irudi atseginak pertsona bakoitzarengandik urte hartan ere atera egin ziren.

Urtero bezala, “las mañanitasekoak” etxez etxe egunsenti polit hura aldarrikatzera joan ziren: *Totoritoren*gana, *Bilboko Luisaren*gana eta *Ana Arregui* gaupasera fijoarenarenean “tres veces te engañé” abestia sentikor kantatu ondoren *Liboriorenerantz* abiatu ziren.

Behin Foru plazan, Liboriori abestu aurretik, bai gaupaseroak bai gaztetxeroak, urteroko galduak,... elkartu ziren eta aho batez kantatzeari eman zioten berriro.

Zelai kalean barna oso alai abiatu ziren. Bidean, etxe guztien aurrean iratzeek freskura botatzen zuten.

Une hartan *Jose* eta *Juanjo* harategikoak jende multzoren abestiekin esnatu eta urtero bezala, ohetik jaiki ziren. Biek, etxeke bata jantzita berehala txorizo, urdaiazpiko, *Sarabe*-ko gazta atera zituzten jendeak jan zezala. Pitxer batzuen gainean ardoa. Lapiko handi bat berriz, bizkotxoak eta txokolate gainezka. Denek tripa beteta kalejiraz Donibaneko mezetara joaten ziren emakumeak topatu ziren.

Fortxorenean ere geldialdi agenda “Las Zapas”-era abiatu ziren haiek aurreko egunean prestatutako arrosen uretan aurpegia garbitzeko asmoz.

Gau eta egunsenti hartan ez zen iratzerik, ez aldemenekorik, ez baselizarik, ez guapaserorik, ez “las mañanitasekorik, ....  
SUGARREN BEROA BAIZIK

**Egilea:** Blanki Torres